

HERRI MUSIKAREN TXOKOA LAGUNDU DUTENAK OMENDUZ

Herri Musikaren Txokoa Oiartzunen izango zela erabaki zenetik proiektua ahalbidetu eta lagundu duten haiek omendu ziren joan den azaroaren 18an.



Egunari hasiera albokari, dultzainero eta argazkiko txistulariek eman zioten beraien kalejirekin. SNN

Gutxi falta da Herri Musikaren Txokoaren 10. urteurreneko urte hau bukatzeko eta ez genuen proiektuari bizia eman diotenak ahaztuta pasatzerik nahi. Asko dira denbora honetan era batean edo bestean lagundu dutenak. Horiek guztiak kontuan hartuta, azaroaren 18an omenaldi txiki bat egin zitzaion.

Egunari hasiera Oiartzungo Herri Musika Eskolako irakasle eta ikasleek eman zioten Elizaldeko plaza eta kaleetan zehar egin zituzten kalejirekin. Adin ezberdinetako txistulari, albokari eta dultzaineroak danbor jole eta pandero joleek lagunduta, hiru taldetan banatuta alaitu zituzten kaleak. Hauek bukatzerako hamabiak aldean ziren, ordu ona pintxo bat hartu eta Udaletxeko Areto Nagusian hitzartuta zegoen kontzertura joateko.

Kontzertua aurkeztu zuen Iñaki Eguren txistulari bati eman zion lehenik ongi etorria, gaur egun Musiken ikasten aritzeaz gain Oiartzungo Herri Musika Eskolan txistulari gazteak trebatzen aritzen den Jon Ansorenari. Bakarrik hasi eta hirukote batek lagunduta jo

zituena lau piezetan bere trebezia agerian jartzeaz gain, gure artean hainbeste urte daramatzan txistuaren erabilpen ezberdinen erakustaldi labur bat egin zuen erreperitorio herrikoiaren mundutik hurbilago dauden piezetatik abiatu eta gaur egungo konposizioetara iritsiz.

Txistuaren soinua dultzainek ordezkatu zuten oholtzara gure lagun artean ditugun Lizarrako Gaiteroak sartu zirenean. Musikari bikain hauek beraien ibilbide luzearen zergatia argi utzi zuten sartu zirenerako. Salvador Martínez, Juan Carlos Doñabeitia eta Gorka Sarasak osatutako hirukoteak maisuki jo zituen beraien erreperitorio zabaletik aukeratutako 10 pieza inguratutako guztien atseginerako.

Kontzertua bukatzeko Hernanitik etorritako laukotea aritu zen. Horietako hiru Oiartzungo Herri Musika Eskolan soinu-tresna ezberdinak jotzen erakusten aritzen direnak izanik, ez zen haiek entzutera etorri zen ikaslerik falta. Aurreko musikarien estiloetatik pixka bat urrunduz herri musikaren beste ikuspegi bat plazaratu

zuten. Eman zuten erreperitorioan euskal abestiak beste lurraldeetakoekin tartekatuta zituzten ziurren herri musikaren arima izan den "bakoitzaren ikuspuntua" erantsiz. Horrela, Euskal Herria, Galizia, Eskozia eta Amerika ekarri zituzten entzuleen belarrietara giro alai eta atseginean. Gozamen honetan asko ez ziren orduaz gogoratu ere egin Ixiar Jauregi, Lara Mitxelena, Sebastian Ustarroz eta Haritz Ezeiza oholztatik atera ziren arte.

Bazkaltzeko ordua iritsia zen. Lagun guztiak kotxeetan antolatuta eta Ergoien auzoan, Soinuenearen ondoan, dagoen Auzokalte elkartera abiatu ziren. Mahai guztiak prest zeuden, eseri eta jatea besterik ez zen falta. Gero geroakoak.

Giro ederrean pasa zen bazkari goxoaren segidan, mahaiaren bueltan omenaldia osatzeko erakusketan jarrita dagoen kalaka baten erreplika den oroigarrien banaketa izan zen. Kalaka hauek astinduz agertu zuten omenduek beraien esker ona eta bukatzeko, afalordura arte iraun zuen musika saioa eta dantza saioa etorri ziren.



10. urteurreneko oroigarria. SNN

KONTZERTUAK SOINUENEAN

Neguko kontzertua

2012ko abenduaren 29an - 18:30tan

ALBA GUTIÉRREZ

Kantabria: Mendiaren Soinua

**SARRERA
5 EURO**

Alba Gutiérrez Kantabriako herri musikaren belaunaldi berriaren ordezkarietako bat da.

Santanderren 1990 sortua, ia 20 urte daramatza herri musikan, 4 urterekin Rosa Martínez irakaslearekin Cabezón de la Sal-eko *Escuela de Folklore* hasi zenetik. Beranduago herri kulturaren ezagutzan murgildu zen landa-lanen bidez eta kanta eta erritmo herrikoiak bilduz.

Kanta, dantza eta perkusioa 16 urte dituenetik erakusten irakasle aritzen da. Hamaika ikastaro trinko eta irakas kontzertu ematen ditu penintsula osoan barrena. Irakaskuntzari dagokionean, bere lana herri musikaren arloko hainbat Eskola eta Ikasgelatara eraman du. Makina bat lekutako ikastetxe eta institutuetan ere irakas jardueretan aritu da.

EGITARUA:

01. Tonada Montañesa
02. La Pandereta en Liébana
03. Aguinaldos
04. La Ronda
05. Jotas y coplas de Rabel
06. La gaita en Cantabria
07. Las marzas
08. La tonada y la gaita
09. Cantos de Bodas
10. La Romería.
Los picayos
11. Los cantos de siega
12. Las jotas del sur de Cantabria
13. Polaciones y la pandereta

Herri musika eta folka egiten duten talde ezberdinetako partaide izana, antzinako musikan ere aritua da.

Folkloreari eta antzinako musikari buruz duen ezagutzak ikerketari ematen dion garrantziarekin batera kantauriar folkloreak adierazle nagusienetako bilakatu du.

Kantabrian herri musikari zuzendutako lehiaketan arteko bi ezagunenetan sei aldiz irabazi ondoren, 13 urterekin, 2003an, bakarkako bere lehen CDa argitaratu zuen.

Espainiako ia probintzia guztietan, Frantzia eta Portugalen eskainitako emanaldi guztiak 700 baino gehiago dira.

Estatu osoko folk munduko artistekin, ikastaroetan, hitzaldietan eta bestelako emanaldietan izandako lankidetzek bermatzen dute orain arte egin duen lana.

Kontzertu honetan, Albak kantauriar herri musikaren aberastasuna ahalik eta gardentasun handienarekin aurkezten du. Kantabriako dantzak eta kantak dira *Mendiko Soinuak* emanaldian ageri direnak. Proiektu etnografiko honetan Yoni Martínez musikari asturiarra du lagun eta elkarrekin, kantauriar eskualde ezberdinetan barrena egingo



duen bidaian, zenbaitetan ia desagertuta dauden soinuak emango dituzte.

Alba Gutiérrez:

Ahotsa, perkusioa eta arrabita.

Yoni Martínez:

Ahotsa, perkusioa eta gaita.

**HAURRENTZAT
eta GURASOENTZAT
KONTZERTU DIDAKTIKOA**

ALBA GUTIERREZ
Kantabria: Mendiaren Soinua

Lekua: Auzokalte elkartea
Ergoien auzoa
20180 Oiartzun

Eguna: 2012-12-29

Ordua: 11:30

Iraupena: 30 minutu

JOKA TALDEA

Josu Cabrero, Ander Blasco eta Beinat Izagirre

Joka taldea 2011ko maiatzean hasi zen proiektua da, Portugaleteko Elai-Alai dantza taldeko bi musikarik sortutakoa. Hasieran bikote moduan hasi zen, partaideak Beinat Izagirre santurtziarra (alboka, txirula/txistua, dultzaina, whistleak, panderoa eta atabala) eta Ander Blasco sopoloztarra (soinu handia, soinu txikia eta panderoa) izanik. Jaietan eta ezkontzetan jotzen hasi ziren, bai euren kontura, bai dantza taldeko partaide bezala. 2011ko urrian Josu Cabrero biolin-jole leioztarra ezagutu zuten, eta pixkanaka-pixkanaka, bikotea 2012. urtean hirukote bihurtu da.

Proiektu honetan garai bateko

erromerietan ohikoa zen soinu-tresna bat gaur egun nagusi denarekin elkartzen dituzte. Hala, adituek esana da antzina Euskal Herriko erromerietako musika tresna nagusia zela arrabita. Tartean, Migel Angel Sagaseta Ariztegik *Luzaidoko Ddantzak* liburuan honela dio:

«Mende honen hasieran instrumenturik ohikoena Arrabita izaten omen zen. Hau oso instrumentu aproposa zen Jauziak emateko - aukeran leku handitarako soinua ahulexko-, horrela musikariak berak jo eta berak marka baitzitzakeen dantzak. Dantza-korroaren erdian zutik ari zen hau edo barrika baten edo goraguneren baten gainean jarrita, dantzariak hobeki entzun zezaten.»

Gaur egun aldiz, edozein erromeria ikusiz gero, soinua da bertako errege. Dantza taldeko esperientziak kontuan izanda, eta Nazioarteko X. Trikitixa Jaialdiko hainbat bideo ikusi ostean, hauxe bururatu zitzairen: tresna horiek biak batu eta trikitixarako kantak biolinarekin jotzeko moldatzea.

Ez dira pieza ezagunetan bakarrik geratu. Lehenik eta behin Bizkaiko trikitilarien piezak hartu dituzte segidan biolinarentzako moldaketak prestatu eta hirukote bezala jo ahal izateko.

Horrenbestez, biolina, soinu handia eta panderoaz osatutako hirukotea da hau eta emanaldi honetan entzungai izango dena proiektu horren emaitza izango da.



Neguko kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoa

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



ERAKUSKETAN HOBKUNTZAK

Aurreko hilabeteen aspaldian egin nahi genituen zenbait hobekuntza egin dira Soinuenean. Hauek erakusketari eragiten diote zuzen-zuzenean. Izan ere, alde batetik erakusketako sabaia egokitu da. Honekin bi kontu hobetu dira: itxura eta akustika. Bai, sabaian jarri diren plakek aretoei itxura modernoagoa ematearekin batera akustikoki hobetzea lortzen dute, oihartzuna gutxitu egiten dute eta soinua garbiago entzutea ahalbidetzen dute. Hau bereziki nabarmena da bisita gidatuetan, soinu-tresnak jotzean edo azalpenak ematean.

Sapaiaz gain, areto bakoitzaren sarreran kristalezko ate bat jarri da gelei independentzia handiagoa emanaz. Hala, gela batean bisita gidatua dagoen artean, bestean bestelako bisita bat egon daiteke elkarri trabik egin gabe.

Hau osatzeko, erakusketako gidak bisitariari diseinu eta kalitate handiko materiala eskaintzeko asmoz egokitu dira besteak beste kolorea sartuz.



TXALAPARTA TAILERRA

Heldu den abenduaren 27an Soinuenean txalapartari zuzendutako tailerra izango da. Gaztetxoei zuzendutako tailer hau arratsaldeko 17:00etan izango da dokumentazio zentroko erakusketan.

Oiartzungo Iriren Lagunekin elkarlanean antolatutako tailer honen helburua herriko gazteenei txalaparta gehixeago hurbildu eta ezagutaraztea izango da. Horretarako, makilak hartu eta oholak joaz hotsa sortzeaz gain, bi txalapartari edo gehiago txalaparta beraren bueltan jarrita era ditzaketen erritmo ezberdinak jotzen entzuteko edota sortzen parte hartzeko aukera izango dute.



Oiartzungo HM Eskolakoak txalaparta jotzen. SNN

XIROLARRUA PROIEKTUAREN IBILALDIA

HM Berriak 41. buletinean azaldu genuen bezala Herri Musika Bildumaren bamean CD+liburua formatuan Xirolarrua proiektua argitaratu genuen. Argitaratzearekin proiektu horren helburuetako bat bete zen, baina horren ondoren beste erronka bati aurre egin behar zitzaion, paperean eta CDan zegoen musika hori zuzenean eta publikoaren aurrean erakustea, eta dagoeneko neurri batean betetzen ari da beste helburu garrantzitsu hau ere. Xirolarru proiektuaren zuzeneko kontzertu ibilaldia Araba-Errioxako Oionen 2012ko maiatzaren 8an hasi zen. Geroztik hona ibilbide hau egin du:

San Sebastian de los Reyes *Museo Etnográfico el Caserón*, Mucientes *Aula Museo Paco Díez*, Logroñoko *Centro Cultural Caja Rioja*, Oiartzun HM udaberriko kontzertua, Iruñeko Muthiko Alaiak elkarteko aretoan eta Lugoko *Centro Lug2an*.

LOGROÑO
2012

Jueves 31 de mayo a las 20 horas
Centro Cultural Caja Rioja - Gran Vía
Concierto-presentación del libro y CD

XIROLARRUA
(La gaita de bota en La Rioja y el País Vasco)
Juan Mari Beltrán & Fernando Jalón

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 631

Antolatutako taldeak: 16

Bisitari kopurua abendura arte: 35080

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 14803

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org



OIARTZUNGO
UDALA